

Markak itsasoan eta gizartean

Euskaldunon Egunkaria, 1991-03-05: 2.

Ni neu lehortarra naiz, ibaiak oso gertu izan baditut ere, eta lehen aldiz itsasoaz galderak egiten hasi nintzen lurraldea Venezuela izan zen; harritu egin ninduen hango arrantzale xume haiek itsaso zabalean galdu gabe ibiltzeko zuten graziak.

Eta han jakin nuen itsasoan markak jartzen zituztela.

Txunditurik geratu nintzen.

Baina ikasi nuen marka hauek itsas bazterrean, lehorrean, jartzen dituztela; hala, itsasoko toki berezi batera itzuli nahi dutenean, alde bateko lurmutur bat eta beste norabideko harkaitz bat lotzen dituzte buruan, eta hurrengo batean puntu berezi hartara joan nahi badute, nahikoa dute txaluparekin bi markak begiz lotu ahal dituzten puntua aurkitzea.

Gero ikusi dut inbentoa aspaldi zabaldua dagoela munduan.

Ni izan ez jakina!

Esatera noana ere nahiko inoxentea dela uste dut, baina esan egingo dut: Politikan ere itsasoan gertatzen den beste hainbeste gertatzen zaigu; eta politikako norabideak asko direnez, beharrezko zaigula bistan ditugun giza-markaz, giza bidez, fidatzea, hau dugulako markak jartzeko lehorra, lur finkoa.

Gainontzekoa urak darama.